

The background features a light cream color with soft, wavy patterns. On the left side, there is a vertical column of overlapping, semi-transparent circles in various colors including purple, blue, green, and yellow. Scattered throughout the page are several stylized green leaves of different sizes and orientations, some appearing to float or fall. The overall aesthetic is clean, modern, and nature-inspired.

# **“Heziberri 2020”**

## **Hasierako plangintza**

## Sarrera

“Heziberri 2020” deituriko plangintza aurkezten da jarraian. Izen horretan bildu eta bateratu nahi dira, batetik, Europako esparruan hezkuntza eta prestakuntzari buruz 2020rako finkatu diren ildo estrategikoak eta, bestetik, euskal hezkuntzak dituen berariazko erronken erantzuna, hartara ondorengo belaunaldiak Euskal Herrian eta munduan bizitzeko ondo prestatuak irten daitezzen.

Euskal Hezkuntzak egindako bidea goraiatzeko modukoa da, eta plangintza honen proposamena oinarri horretan ezartzen da. Batetik, ibilbide luzea eta emankorra izan eta erakutsi duten esperientzietatik abiatzen gara. Adibidez, elebitasunaren eta eleaniztasunaren ingurukoak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien ingurukoak, aniztasunaren trataerari buruzkoak, elkarbizitzari buruzkoak, etab. Ibilbide horretan, aipatutako esperientzietan eta beste batzuetan metatutako eta euskal hezkuntza komunitatean partekatzen dugun kultura pedagogikoa, plangintza honetako albora ezina den abiapuntua da. Esperientzia horien eta aurrekarien artean nabarmentzekoa da hezkuntza eragile sozialen eta politikoen artean hezkuntza eta curriculum eredu propioa adostuz eraikitako Euskal Curriculumaren ekimena. Hezkuntza eragile sozialek proposamen desberdinetan gauzatutako hezkuntza ereduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarritzako Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko Dekretuaren oinarria izan da. Geroztik, Curriculumaren egitasmoak bere garapen bidea egiten jarraitu du.


Bestetik, Eusko Jaurlaritzako 2012-2016 legegintzaldirako hezkuntzari buruzko Gobernu-Programaren helburuak eta ekimenak ditu erreferente eta helburu. Izan ere, Gobernu honen konpromisoa da Hezkuntza Sistema sendo eta zorrotza defendatzea, unean uneko aldaketa politikoetatik salbu, sistema egonkorra alegia, etengabeko erreformak alde batera utzita eta hezkuntza eragileen arteko akordioetan oinarrituta. Horregatik guztiagatik, lotura zuzena dago aurkezten den plangintzako egitasmoen eta Gobernu-Programaren artean.

Gainera, azpimarragarria da, “Hezkuntza eta Prestakuntza 2020” deituriko marko estrategikoaren helburuak ere plangintza honen oinarri direla, Europako Kontseiluak, hezkuntza eta prestakuntzari buruz proposatzen dituen ildo estrategikoen eta plangintzako egitasmoen arteko lotura estua baita.

Azkenez, “Heziberri 2020”, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak eta euskal hezkuntza eragile nagusiek, LOMCEren aurrean aho batez eta maiztasunez azaldu duten gaitzespenari aurre egiteko ekimena da. Hezkuntza eragile nagusiek, publikoek zein itunpekoek, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema propioa sendotzeko eta euskal curriculumak bermatzeko beharra azaldu dute. “Heziberri 2020” plangintzako egitasmoen bidez, euskal hezkuntza sistema sendotu nahi da, egiten diren proposamen bidez ditugun hezkuntza eskumenak muturreraino eramanez eta era berean horien bideragarritasuna eta legearen bermea ziurtatuz.

Osagai guzti horien eraginez eta egoera horren aurrean, bata bestearekiko osagarriak diren ondorengo egitasmoak gauzatzeko, "Heziberri 2020" plangintza aurkezten dugu:

- *Lehen egitasmoa*: Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa sortzea eta adostea.
- *Bigarren egitasmoa*: Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum Dekretuak prestatzea eta adostea.
- *Hirugarren egitasmoa*: Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea.



Desberdinak baina osagarriak diren egitasmo horien bidez, hezkuntza sistemaren kalitatea eta bikaintasuna erdiesteko bideak zabalduko dira. Hiru egitasmoen garapenaren bidez lortu nahi diren helburuen artean ondorengo hauek nabarmentzen ditugu:

- Lehen egitasmoaren garapenak, Euskal Herriaren uka ezina den berariazko ezaugarri kulturala eta linguistikoa, eta lurralde bakoitzaren egoera politiko/administratiboa hobeto uztartzeko bidea ahalbideratuko du.
- Lehen eta bigarren egitasmoen garapenak, kalitatezko hezkuntza bideratzeko, hau da, ikasleek oinarritzko konpetentzia guztiak garatzeko eta bizitzarako prestatzeko bideak eragingo ditu.
- Bigarren egitasmoaren garapenak, Oinarritzko Hezkuntzaren bukaeran ikasleak lortzea espero dena argi adierazten eta eragileen artean adosten den heinean:

- *Haur Hezkuntzako, Oinarrizko eta Derrigorrezko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza) eta ondorengo Batxilergoko eta Lanbide Heziketako etapen arteko artikulazioa jarraituagoa egiteko bideak irekiko dira.*
  - *Hezkuntza egitasmo desberdinen (eleantitasuna, IKT, bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza, hezkidetzak, aniztasunari arreta, irakasleen prestakuntza, ikas materialgintza, etab.), arteko kohesioa eta sinergiak sortzeko abagunea areagotuko da.*
  - *Hezkuntza eredu pedagogiko propioaren eta oinarrizko kompetentziei buruzko Europako Parlamentuko gomendioekin bat datorren ikaslearen ebaluazio proposamena egiteko abagunea areagotuko da, LOMCEren planteamendu murriztailea gaindituz.*
  - *Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntza baliagarria eta koherentea egiteko abagunea areagotuko da.*
  - *Ikastetxeen Hezkuntza Proiektua, hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztien artean eraikitzeko (familien partaidetza nabarmenduz) lagungarria izango da.*
- Hiru egitasmoen garapenean hezkuntza eragile sozialen eta politikoen atxikimendua lortzen den heinean, hezkuntza sistemari hain beharrezkoa duen egonkortasuna emango zaio.
  - Hiru egitasmoen inguruko adostasunak eta, bereziki, Euskal Hezkuntzaren Legearen ingurukoak, EAEko ikastetxe publikoak eta itunpekoak, bakoitzaren ezaugarriak galdu gabe, ekitatean eta efizientzian oinarritutako hezkuntza sistema bateratua osatzeko oinarriak jarriko ditu.

Plangintza honetan, hiru egitasmoen aipamena egiten da, baina ez dira maila berean garatzen:

	Ideia-aren aurkezpena	Plangintza-aren aurkezpena eta onespina	Agiri-aren aurkezpena, onespina eta berrespina
1go egitasmoa	X	X	
2. egitasmoa	X	X	X
3. egitasmoa	X		

Plangintza proposamen hau, beraz, bizia da eta osatzen eta egokitzen joango da egitasmoen garapenarekin batera eta prozesuan zehar sortzen diren egoeren baldintzen arabera.

## 1. Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa (lehen egitasmoa)

Hezkuntza sistemaren barruan osagarriak diren bi dimentsio bereizi ohi dira: curriculumaren edo hezkuntza eredu pedagogikoa jasotzen duen dimentsioa, batetik, eta, bestetik, antolaketaren egitura eta baliabideen eta hezkuntza zerbitzuen administrazioaren dimentsio instituzionala.

**“Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa”** esaterakoan, Euskal Herrian bizi direnentzat, oinarrizko eta derrigorrezko eskolaldirako hezkuntza ereduaren lehen zehaztapena egingo duen dokumentua aurreikusten da. Ondoren, lurralde bakoitzaren ezaugarrietara egokituz, garapen zabalagoa eta teknikoagoa izan dezakeena. Marko horretan, euskal lurralde bakoitzaren egitura juridiko-administratiboa, eskola sektore bakoitzaren eta eskola bakoitzaren nortasun bideak zainduz, guztientzat onargarria litzatekeen hezkuntza eredu pedagogikoaren oinarri komunak edo euskal gizartearen lotura egiteko “proiektu komun baten arragoa” (J. Delors, Unesco) adostu nahi da.

Dokumentu horretan jasotzen diren oinarrizko edukiek indar erreferentziala izango dute. Lotesleak izango dira bere borondatez horrela erabakitzen dutenentzat, baina ez du legearen derrigortasunik izango. EAEko lurraldean, Curriculum Dekretuak eraikitzeko oinarria izango da eta beste euskal lurraldeetako hezkuntza eragile sozial eta politikoen esku jarriko da, lankidetzara bideak adosteko asmoz.

Egingo den proposamena kalitatezkoa izatea da garrantzizkoa, baina garrantzitsuena, proposamen horretan oinarrituz, euskal lurraldeetako hezkuntza eragileen artean hezkuntza eredu pedagogikoaren inguruan adostasuna lortzea eta adostutakoa indarrean jartzeko borondatea izatea dira.

Ondorengo taulan “Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioaren” balizko osagaiak proposatzen dira:

## “Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioaren ” balizko osagaiak

### Sarrera

- Testuingurua, egoera eta beharrak.

### 1. Ikaslearen irteera-profila

- Hezkuntzaren xedeak: bitzta osorako eta oinarrizko hezkuntzarako.
- Oinarrizko eta derrigorrezko eskolaldirako oinarrizko konpetentziak.

### 2. Edukiak

- Bizitzarako eremuak eta egoera-familiak hautatzeko irizpideak.
- Euskal Curriculumaren kultur ibilbide espezifikoa eta unibertsala (ezagutza deklaratioa) hautatzeko irizpideak

### 3. Metodologia

- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntzaren norabide metodologikoak.
- Oinarrizko konpetentziak garatzeko prozedura metodologikoen norabideak.
- Euskararen erabilgarritasunaren norabideak.
- IKT baliabideak arlo guztietan integratzeko norabideak.
- Inklusioari eta aniztasunari arreta bideratzeko norabideak.

### 4. Ebaluazioa

- Ikaslearen irteera-profileko oinarrizko konpetentzia guztiak ebaluatzeko norabideak.

### 5. Hezkuntza eredu pedagogikoa gauzatu ahal izateko ildo estrategiko instituzionalak

- Ikas materialak sortzeko norabideak.
- Irakasleen prestakuntza (hasierakoa eta etengabekoa) bideratzeko norabideak.
- Hezkuntza sistema osoa ebaluatzeko norabideak.

## 2. Euskal Autonomia Erkidegoko curriculum dekretuak (bigarren egitasmoa)

Euskal Autonomia Erkidegoko **Curriculum Dekretuak** esaterakoan, Haur Hezkuntzako, Oinarrizko Derrigorrezko Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumak finkatzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan arauaren indarra izango duen curriculumaz ari gara.

Dekretuak finkatu ahal izateko, beharrezkoa da aurretik gutxienez ondorengo informazioa eskuratzea:

- **“Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioa”**. Lehen eta bigarren egitasmoko curriculumaren osagaiak berdinak izango dira (Ikaslearen irteera profila, edukiak, metodologia, ebaluazioa). Osagai horiek edonongo curriculum diseinuko ohiko osagaiak dira (zertarako, zer eta nola irakatsi eta ebaluatu). Lehen egitasmoa, bigarren egitasmoa eraikitzeke oinarria den adinean, bigarren egitasmorako lehenengoaren erreferentzia beharrezkoa da. Bi egitasmo hauen artean lotura egiteak, dekretuaren barne egitura ohikoa den curriculum diseinuarena izatea dakar. Horrek, oinarrian dagoen hezkuntza eredia ikusgarriagoa egingo du eta ikastetxeek eraiki behar duten Hezkuntza eta Curriculum Proiektuak eraikitzeke lagungarria izango da.
- **Dekretuen eta beste esperientzien balorazioa**. Etapa desberdinetan indarrean dauden Dekretuen balorazioa (diseinuaren eta garapenaren balorazioa) egungo egoeraren diagnostikoa eta eman daitezkeen urratsen pronostikoa egiteko baliagarria izango da. Diseinuaren aldetik, Dekretu horiek kompetentzietan oinarritutako curriculum diseinura hurbiltzeko dituzten mugen kontzientzia argia da. Adibidez, adierazgarria da “Oinarrizko gaitasunak” izenburu duen Dekretuen 3. Eranskineko bukaera: *“Orain arte azaldutako guztia aintzat hartuta, oinarrizko gaitasunei buruzko testu honi izaera dinamikoa aitortu behar diogu, ikusita, gainera, testuinguru aldagarri batean kokatzen dela; hala, idatzi hau Europar Batasunak finkatutako hezkuntza-gaitasunen egungo proposamenetara gerturatzeko ahalegintzat hartu behar da, eta ez testu itxi edo behin betikotzat”*. Bestetik, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza garatzeko eta ikas materialak sortzeko esperientzien ekarpenak (euskal esparruan eta munduan) biltzea, dekretuak finkatzeko oso lagungarria izango da.
- **LOMCEren garapena eta gutxieneko edukiak ezartzen dituzten errege dekretuak**. Oraingoz, ikuskizun dago zein neurritan baldintzatuko dituzten EAEko hezkuntza eskumenak eta zein izango den indarrean jartzeko ezarriko den egutegia. Euskadik hezkuntza arloan berariazko eskumenak izanik, segurtasun juridikoa bermatuz, lege eta arau mailako garapen propioa ziurta dezake.

### 3. Euskal Hezkuntzaren Legerantz urratsak ematea (hirugarren egitasmoa)

Euskal Hezkuntzaren Legerantz urratsak emateko arrazoi desberdinak daude. Beste arrazoiaren artean:


- Gernikako Estatutuan aitortzen zaizkigun hezkuntza eskumenak benetakoak izateko.
- Gure testuinguruaren eta gizartearen beharretara (pertsonalak, sozialak, akademikoak, ekonomikoak, laboralak...) egokituz, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.
- Ikastetxe publikoak eta itunpekoak, bakoitzaren ezaugarriak galdu gabe, ekitatean eta efizientzian oinarrituz, egonkortasuna izango duen hezkuntza sistema bateratua osatu ahal izateko.

2012-2016 Gobernu Programan eta plangintza honetan “Euskal Hezkuntza Legerantz hurbiltzeko urratsak ematea” aurreikusten da. Lehen eta bigarren egitasmoek, bide horretan oinarriak finkatzen dituztenez gero, hirugarren egitasmora hurbiltzeko urratsak dira.



## 4. Egitasmoen antolaketa eta kudeaketa

### 4.1. Organigrama<sup>1</sup>



### 4.2. Egitasmoen proposamenak prestatzen hasteko informazio iturriak

“Heziberri 2020” plangintzari sendotasuna emateko eta egitasmoen proposamenak prestatzen laguntzeko, informazio kutxa sortzeko proposamena egiten da. Kutxa horretako edukia etengabe berritzen jarrai daiteke, eta, oraingoz plangintza aurreikusitako egitasmoak prestatzeko erabili arren, ondoren beste erabilpenetarako ere baliagarriak izan daitezke. Era berean, egitasmoen garapenean sortzen diren beharren arabera, kutxa honetan sar daitezke beste era bateko informazioak.

Une honetan ondorengo informazioa bilduko da:

- Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioaren balizko osagai bakoitzaren inguruko informazioa eta proposamen esanguratsuak.
- Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduaren esperientziak: barruko esperientziak (hezkuntza eragileenak, berritzeguneak...) eta beste herrialdeetako esperientziak (Kanada, Belgika, Erresuma Batua, Irlanda, Finlandia...).

<sup>1</sup> Kurtsibaz doazenean, bakarrik 2. eta 3. egitasmoetan

### 4.3. Lehen egitasmoko plangintza egiteko eta onartzeko urratsak

eginkizunak	ardura/partaideak	kronograma <sup>2</sup>
1.- Plangintza proposamena prestatu	Zuzendaritzako kideak.	
2.- Eztabaidan jartzeko plangintzaren oniritzia jaso.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.	
3.- Hezkuntza eragileei plangintza aurkeztu: hiru egitasmoen ideiarekin eta lehen egitasmoko plangintza aurkeztu.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin.	2013-09-18
4.- Lehen egitasmoko plangintzaren kontrastea egin.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko kideen eta hezkuntza eragileen artean.	
5.- Lehen egitasmoko plangintza osoaren onespina jaso.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin.	2013-10-09
6.- Lehen egitasmoko plangintzaren berrespina eta komunikazioa.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura. Saila.	

### 4.4. Lehen egitasmoko plangintza gauzatzeko, agiria onartzeko eta plazaratzeko urratsak

eginkizunak	Ardura/partaideak	kronograma
1.- Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioaren txostena eta eztabaidan jartzeko proposamena prestatu.	Zuzendaritzako kideek eta talde teknikoak <sup>3</sup> .	
2.- Eztabaidan jartzeko plangintzaren oniritzia jaso.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.	
3.- Hezkuntza eragileei txostena aurkeztu eta proposamena hobetzeko prozesua eta bideak antolatu.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin.	2013-12-20
4.- Proposamenaren kontrastea egin.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko kideen eta hezkuntza eragileen artean.	Egunak adostu
5.- Txostenaren balidazioa eta onespina.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin.	2014-02-20
6.- Txostenaren berrespina eta komunikazioa.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.	
7.- Txostenaren argitalpena eta gizarteratzea.	Eusko Jaurlaritza/Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.	

<sup>2</sup> Kronograman aurre ikusten diren epeak betetzeko asmoz jartzen dira, baina hala beharrez epeak aldatzea (aurreratzea ala atzeratzea) gerta daiteke.

<sup>3</sup> **Talde teknikoak osatzeko irizpideak:** Lehen egitasmoko proposamena prestatzeko lantaldea ez da handia izan behar, bai ordea ezaugarri hauek beteko dituen:

- Hezkuntza eredu pedagogikoaren marko propioaren atalak osatzeko borondate du eta ekarpenak egiteko gai da.
- Lantaldeko kideek euskal hezkuntzari buruz gure artean dauden ikuspegi desberdinak aintzat hartzeko eta ahal den neurrian bateratzeko gai dira.
- Hezkuntza esparruan diharduten sektore publiko zein itunduetako kideez osatutako lantaldea da.
- Osatzen den lantaldeko kideek, lehen egitasmoko hezkuntza ereduaren markoa eta, era berean, bigarren egitasmoko marko horren garapena egiteko prestu daude.

#### 4.5. Bigarren egitasmoko plangintza egiteko eta onartzeko urratsak

eginkizunak	ardura/partaideak	kronograma
1.- EAEko Dekretuak eta ikas arloen programak gauzatzeko planifikazioa eta talde teknikoa osatzeko proposamena prestatu.	Zuzendaritzako kideak.	
2.- Etabaidan jartzeko plangintzaren oniritzia jaso.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak.	
3.- Bigarren egitasmoko plangintzaren aurkezpena.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin eta Euskadiko Eskola Kontseiluarekin	2013-12-20
4.- Bigarren egitasmoko plangintzaren kontrastea egin.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko kideen eta hezkuntza eragileen artean.	Egunak adostu
5.- Bigarren egitasmoko plangintzaren balidazioa eta onespina.	Sailburu eta Sailburuordearen bilera hezkuntza eragileekin.	2014-02-20
6.- Plangintzaren berrespena eta komunikazioa.	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak.	

## Laburpena

### Hezkuntza eragileekin biltzeko aurreikusitako egunak

	Ideiaren aurkezpena	Plangintzaren aurkezpena	Plangintzaren onespena	Agiriaren aurkezpena	Agiriaren onespena
<b>Lehenengo egitasmoa</b>	2013-09-18	2013-09-18	<b>2013-10-09</b>	<b>2013-12-20</b>	2014-02-20
<b>Bigarren egitasmoa</b>	2013-09-18	<b>2013-12-20</b>	2014-02-20		
<b>Hirugarren egitasmoa</b>	2013-09-18 <b>2013-12-20</b>				